



"Animatu Euskaraldian parte hartzera!"

Zein rol hartuko dut nik Euskaraldian? Galdera hori buruan nuela harrapatu ninduen albisteak: «Desoreka nabarmena dago rol batetik bestera: bostetik lauk *ahobizi* gisa eman dute izena. Hilabete falta da Euskaraldia hasteko, eta izena emateko epea zabalik dago oraindik» (*Berria*, 2018-10-24). Zer gehiago behar nuen zirt edo zart egiteko?

Izan ere, zergatik izan behar dugu denok *ahobizi* Euskaraldian parte hartzeko? Zerk ukatzen digu *belarriprest* izatea, euskaraz moldatzeko gai izan arren?

Bai, badakit, agian, zuk euskaraz aritzea duzula erronka nagusi; gai zara, baina urrats hori egitera zoazen bakoitzean tximeletak hasten zaizkizu sabelean jirabiran oraindik, eta Euskaraldiak beldur horiek gaingitzen lagunduko dizulakoan erabaki duzu *ahobizi* izatea. Hala bada, bejondeizula!, erabaki egokia hartu duzu.

Baina, ez bada hala? Euskaraz aritzeko inolako beldurrik ez baduzu, zergatik ez izan *belarriprest*? Beharbada, zuk ere badituzu gaingitu beharreko inertziak eta ondo etorriko zaizu zeure buruari egiteko batzuk jartzea: inguruko euskaldunekin euskaraz aritzea, ezezagunekin lehen hitza beti euskaraz egitea... Hala ere, zerk oztopatzen dizu hala jokatzeari *belarriprest* izanda ere?

Pentsatu zein mesedegarri izango zaion zure erabakia euskaraz hitz egiten hasteko beldurrez dabilen horri. Zalantzan dabilenaren konfort ingurunea sendotzen lagundu dezakezu zure helburuei uko egin gabe. Sentsazio ona inondik ere behar duenari babesa eskaintzearena, zer betegarriago?

Gainera, gogoratu: *belarriprest* izatea dakienari zuri euskaraz hitz egiteko gonbitea egitea da, ez gehiago, ez gutxiago. Ederra hori ere, lagunak gonbidatzea, alegia. Hortaz, animo eta izan zaitez *belarriprest*!

Eli Altuna Zurutuza, Legazpi 6 euskaltegiko irakaslea 2018-11-30